


[Hernialdeko jaiak 2019]

# Petritegiko sagardoa txapeldun, Hernialdeko XXXVII. sagardo txapelketan

Itzea Urkizu Arsuaga 2019-08-18 16:30



XXXXX sagardoa onena, Hernia 12 1566138568616






Andra Mari jaien azken egunean, sagardo dastatzea indar erakarlea izan da, Hernialdeko plaza jendez betetzeko.

Postuak frontoiko arkupean, eta adituak oholtza gainean. Hori izan da, bazkal aurreko orduetan, Hernialdeko plazako atrezzoa. XXXVII. sagardo txapelketa ospatu dute, Andra Mari jaien barruan, eta txapelketaren ibilbidea ez da zenbakian bakarrik nabaritu: herritarrez gain, hainbat sagardozale bertaratu da Hernialdera, beren dastamena epaimahaiarenarekin alderatzera.

Epaileak serio aritu dira oholtzatik, sorta bakoitza dastatuz, usainduz eta itxurari erreparatuz. Petritegi sagardotegiak jaso du puntuaziorik altuena eta, ondorioz, aurtengo irabazlearen txapela jaso dute. Bigarren postuan Sarasola sagardotegiko sagardoa sailkatu da, eta hirugarren saria bi sagardotegiren artean banatu behar izan dute: Gaztañagaren eta Barkaiztegiren artean.

Ohiko moduan, sagar zukuari laguntzeko txorixo pintxoak ere eskuragarri izan dituzte hala nahi zutenek, eta ia denek etsi behar izan dute, bazkal aurreko gosearen eta tentazioaren aurrean.

Hernialden gaur agurtuko dituzte amabirjinak, baina [igandearen neurriko egitaraua] dute bazkalondorako.

[Festak] [Hernialde]

Albiste hau ATARIKIDEei esker argitaratu dezakegu. Haiei esker Tolosaldeko albisteak libre, euskaraz eta kalitatez irakurtzen dituzu. Horrela izaten jarraitzeko eman babesa Tolosaldeko Atariari eta ZU ERE IZAN ZAITEZ ATARIKIDE.

**BATAK BESTEA DAKAR**

EGIN ATARIKIDE!

Erantzun












## Ikusienak



[Traktore bat irauli eta pertsona bat zauritu da Bedaion]

Tolosaldeko Ataria abu 26, 18:26 [Tolosa]



[Indarrak neurtzen, festen azken txanpan]

[Bidaniko jaiak 2019]

Irati Saizar Artola abu 25, 20:55 [Bidania-Goiatz]



[Azken kartutxoak kuadrillan erretzen]

[Ibarrako jaiak 2019]

Irati Saizar Artola abu 25, 13:46 [Ibarra]



[Belaunaldi berrien sasoia, festarik onena]

[Amezketako jaiak 2019]

Itzea Urkizu Arsuaga abu 24 [Amezketa]



[Molpoidoko auzotarrak izan dira nagusi sokatiran]

[Ibarrako jaiak 2019]

Irati Saizar Artola abu 24 [Ibarra]



["Ni traineru kanpotik eta Alexander barrutik aritzeak sendotasuna eman dio taldeari"]

Urola Kostako Hitza abu 26, 18:00 [Tolosa]






**Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.**
San Esteban, 20 Tolosa 20400
tkt@ataria.eus

**Erredakzioa:** ataria@ataria.eus / 943 655 695

**Publizitatea:** publi@ataria.eus / 661 678 818

Codesyntaxek garatua

CC BY SA

HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS

galtzaundi BERTAKO HEDABIDEAK Txolarre haritu Lizarbi

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
Gipuzkoako Foru Aldundia
bai euskarari
2015 Bikain
arrosa irratien sarea

TOKIKOM
Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA AIKOR ANBOTO ATARIA BALEIKE AIURRI ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GOIENA GUAIXE HIRUKA

KARKARA MAXIXATZEN PLAENTXIA ALEA 28 KANALA ANTXETA BARREN ERLO TELEBISTA GEURIA GOIERRI TELEBISTA